Argia Fundazioa

esto no es una memoria

hau ez da memoria bat

presentación

Como nos ha sucedido a todos, el año 2012 ha sido un año difícil. La crisis nos ha colocado a todos en un escenario incierto. Hemos mirado la peseta. Hemos multiplicado los panes. Hemos invertido en esperanza y en esfuerzo. En ilusión y en participación. En mejora y en planificación. Hemos podido mantener nuestras actividades de forma excelente. Hemos hecho realidad el proyecto de Club Social y que se mantenga a lo largo de 2013.



Esto no es una memoria. Es una invitación. Un agradecimiento.

Una invitación para que conozcáis lo que realmente hemos hecho a lo largo de 2012. Para ello hemos colgado la memoria en nuestra web: ***www.argiafundazioa.org*** En la sección: ***publicaciones.***

Y un agradecimiento: a todas las entidades y personas que confían en nosotros y que con su apoyo nos ayudan a continuar nuestra labor, a las personas que a través de su motivación e implicación hacen de Argia un lugar especial y a todas aquellas personas que reciben atención en alguno de nuestros servicios por poner todo de su parte por mejorar y por hacernos mejorar.

Esto no es una memoria. Es una historia de lo que somos. Y somos lo que hacemos. Somos lo que innovamos. Somos lo que compartimos y contamos. Somos lo que soñamos. Somos tod@s.

Argia Fundazioa somos una entidad sin ánimo de lucro y nuestro Patronato está compuesto por:

aurkezpena

Denoi gertatu zaigun bezala, 2012. urtea zaila izan da. Krisia dela eta, denok zalantzazko egoeran gaude. Arretaz gastatu behar izan dugu. Ogiak ugaritu ditugu. Itxaropenean eta ahaleginean inbertitu dugu. Ilusioan eta parte-hartzean. Hobekuntzan eta plangintzan. Gure jarduerei ezin hobeto eutsi ahal izan diegu. Club Social proiektua egia bihurtu dugu, eta 2013. urtean proiektuari eustea lortu dugu.

Hau ez da memoria bat. *Gonbidapen bat da. Esker on bat.*

2012. urtean egiatan zer egin dugun jakiteko gonbidapen bat. Horretarako, memoria gure web-orrian jarri dugu eskuragarri. **www-www.argiafundazioa.org, argitalpenak** *atalean.*

Eta eskerrak on bat eman behar diegu hauei: gugan konfiantza duten eta haien babesaz gure lana egiten laguntzen gaituzten erakunde eta pertsona guztiei, motibazioaren eta inplikazioaren bidez Argia leku berezi bihurtzen duten pertsona guztiei, eta gure zerbitzuetako baten arreta jasotzen duten pertsona guztiei, beren aldetik dena jartzeagatik hobetzeko eta gu hobearazteko.

Hau ez da memoria bat. *Gu garenari buruzko historia da. Eta egiten duguna gara. Berritzen duguna gara. Banatzen eta kontatzen duguna gara. Amesten duguna gara. Denok gara.*

somos lo que hacemos

En Argia damos respuesta a una serie de problemas que la enfermedad mental grave y los trastornos psíquicos puede generar en una persona. Llevamos 23 años haciéndolo.

Y en el 2012 lo hemos hecho a través de nuestros 3 grandes procesos:
Hospital de Día, Pisos Tutelados y Residencia Zurimendi. Con 258 personas atendidas, el 90% de ellas en plazas concertadas.

Desde la mejora de la salud físicas y mental.
Desde la mejora de la convivencia y de vivienda.
Desde la mejora del ocio, de las relaciones interpersonales y de la integración social.
Desde el desarrollo de las capacidades y habilidades. Del estar bien con uno mismo/a y en el entorno.
Desde el centro que es la persona.

Porque la línea comenzada en 2012 y que está en desarrollo apuesta por **un modelo donde las personas vayan siendo cada vez más protagonistas en la definición de su proyecto vital**.

Y desde ahí hacemos todos nuestra labor. Contamos con 63 profesionales en continua formación. Que aúnan su visión. Que desarrollan sus competencias.
Contamos con otros procesos de Dirección y de Apoyo para que todo esto sea una realidad.

Y contamos con Voluntariado, 25 en este 2012, desde la visión fresca y abierta a la sociedad que nos aporta.

egiten duguna gara

Gaixotasun mental larriek eta arazo psikologikoek pertsona batengan eragin ditzakeen arazoak artatzen ditugu Argian. 23 urte daramatzagu lan horretan.

Eta 2012. urtean 3 prozesu handiren bidez egin dugu:
Eguneko ospitalea, babespeko etxebizitzak eta Zurimendi egoitza. 258 pertsona artatu ditugu, eta pertsona horien %90 plaza hitzartuetan.



Osasun fisikoa eta mentalaren hobekuntzak oinarri hartuta.
Bizikidetza eta etxebizitzaren hobekuntza oinarri hartuta.
Aisialdia, pertsonen arteko harremanak eta gizarteratzearen hobekuntza oinarri hartuta.
Ahalmenak eta trebezien garapena oinarri hartuta. Norbera bere buruarekin eta ingurunearekin ondo egotea oinarri hartuta.
Gure lanaren muina, hain zuzen, pertsona, oinarri hartuta.

Izan ere, 2012. urtean hasitako ibilbideak, eta egun garatzen ari garenak, **pertsonak beren bizitza-proiektua zehazten gero eta protagonistagoak izatea oinarri duen eredu baten alde** egiten du.

Eta hori oinarri hartuta egiten dugu gure lan guztia. Etengabeko prestakuntzan dabiltzan 63 profesional ditugu. Profesional horiek beren ikuspuntua bateratzen dute. Beren gaitasunak garatzen dituzte.
Beste zuzendaritza- eta laguntza-prozesu batzuk ere baditugu, hori guztiak errealitatea izan dadin.

Eta boluntarioak ere baditugu, 2012. urtean 25. Boluntario horiek gizartearekiko ikuspuntu freskoa eta irekia eskaintzen digute.

berritzen duguna gara

Horrez gainera, gure ustez, esku-hartze aukera berriak, gure zeregina betetzeko leku berriak sortu behar dira, krisian egon arren. 2012. urtean zehar, jakintza eta berrikuntza kudeatzeko prozesuan 17 ideia-proposamen bildu ditugu. Hiru proiektutan gauzatu da batez ere jarduera berritzailea: bi aurretik hasi ziren, eta amaitu eta ebaluatu dira; hirugarrena, aurten hasiko da. Hiru proiektuek proiektua bera gainditzen duten emaitzak izan dituzte, eta oro har, onuragarriak izan dira Argiarentzat.

"Animaliek lagundutako terapia" **izeneko proiektuaren** ebaluazioa.

Bizitza independentea izaten laguntzeko "Zabalduz" proiektua.

Club Social proiektu pilotua.

Lehen aldiz, funts pribatuak biltzeko kanpaina egin genuen, baita ustekabeko arrakasta lortu ere. Horri esker, Club Social klubari 2013. urtean eustea lortu genuen.

Gainera, proiektu horietan ikasitako guztia gure lanean eta erakunde osokoan erabiltzeko izango dela pentsatuz egin dugu, eta horrela izan da.

Atzo baino zerbait zaharragoak gara, baina baita argiagoak ere.

somos lo que innovamos

Además creemos que hay que generar nuevas alternativas de intervención, nuevos escenarios donde plasmar nuestra misión, aun a pesar de la crisis. A lo largo del año 2012 en el proceso de gestión del conocimiento e innovación hemos recogido 17 diferentes propuestas de ideas. La actividad innovadora del año se ha centrado en tres proyectos piloto, dos comenzados con anterioridad y que ha sido finalizados y evaluados y el tercero que comienza este año; en los tres encontramos resultados que superan al propio proyecto aportando beneficios para Argia en global

La evaluación del **proyecto de** ***"Terapia Asistida con Animales*** *(TAA)".*

El proyecto ***"Zabalduz" de Apoyo a la vida independiente.***

El proyecto piloto de ***Club Social.***

Realizamos por primera vez una campaña de captación de fondos privados, con un éxito inesperado, que permite mantener el Club Social durante el año 2013.

Todo además desde la creencia de que lo aprendido en estos proyectos había de revertir en lo que hacíamos y en el cómo de toda la organización, como así ha sido.

Somos algo más viejos que ayer, pero algo más listos.

somos lo que compartimos y contamos

Y en esto creemos, en compartir y en contar, en mejorar y en aprender. Para ello hemos creído importante desarrollar alianzas, sistematizar nuestro conocimiento, divulgarlo, aprender de los demás, crear y participar de foros de intercambio de experiencias.

Dejamos algunas pinceladas:

- III Jornadas Técnicas de Argia
- Primer encuentro de Innovación ETORBIZI
- Congreso FEARP
- Desarrollo y apuesta por mejorar y enriquecer nuestra página web.

En el mes de Noviembre, tras una primera autoevaluación, solicitamos la realización de un contraste externo de Euskalit, cuyo informe final recoge las siguientes conclusiones:

"Queremos animaros a continuar con el trabajo que se viene realizando, y el compromiso demostrado con la mejora de la gestión.
Creemos que si la entidad continúa trabajando en las líneas de acción que se ha marcado, así como en las áreas de mejora que se han detectado en el plan estratégico, en la autoevaluación y en el presente contraste, avanzará a grandes pasos en el camino de la Excelencia y la Gestión Avanzada"

Y, además, hemos apostado por las Redes Sociales, por acercaros nuestra realidad a través de ellas, por haceros participes de lo que somos.

twitter.com/ARGIA_FUNDAZIOA facebook.com/ARGIA FUNDAZIOA bailandoentrecuerdos.blogspot.com

banatzen eta kontatzen duguna gara

Eta horretan sinesten dugu, banatzean eta kontatzean, hobetzean eta ikastean. Horretarako, garrantzitsutzat jo dugu aliantzak garatzea, gure jakintza sistematizatzea, hedatzea, besteengandik ikastea, sortzea eta esperientzia-trukeko foroetan parte hartzea.

Hona hemen xehetasun batzuk:

- Argiaren III. Jardunaldi Teknikoak
- ETORBIZI Lehen Berrikuntza Topaketa
- FEARP Biltzarra
- Gure web-orria garatzeko, eta hobetzeko eta aberasteko apustua egitea.

Azaroan, lehen autoebaluazio bat egin ondoren, Euskaliti kanpo-alderaketa bat egiteko eskatu genion. Euskaliten azken txostenak ondorio hauek biltzen ditu:

"Orain arte egin duzuen lana egiten jarraitzera animatzen zaituztegu, baita kudeaketa hobetzeko hartutako konpromisoari eustera ere.
Erakundeak orain arte ezarritako ekintza-ildoei jarraituz lan egiten jarraitzen badu, bai eta plan estrategikoan, autoebaluazioan eta alderaketa honetan hautemandako hobekuntza-eremuetan ere, aurrerapen handiak egingo ditu Bikaintasuna eta Kudeaketa Aurretatua lortzeko bidean".

Eta gainera, sare sozialen alde ere egin dugu, zure errealitatera gerturatzeko haien bidez, zer garen zuei jakinarazteko.

amesten duguna gara

Eta amesten jarraitu nahi dugu, zergatik ez? Hobetzen jarraitu nahi dugu. Bide berriei ekin nahi diegu, jada egiten duguna finkatu. Sortu eta hazi. Denon artean egin. Zurekin egin.

Garai hauetan, badakigu inbertitzeari, diruz laguntzeari, laguntzeari eta emateari buruz hitz egiteak utopia dirudiela, ia mirari bat, arrisku bat, baita lotsagabekeria bat ere. Baina atzean problematika eta behar batzuk dituzten pertsonak badaude, atzean protagonismoa eta autonomia oinarri dituen apustu bat badago, agian, ahaleginaren, esfortzuaren, beste mundu bat posible dela pentsatzearen itxura izan dezakeela.

Badakigu zer egoeratan gauden, zer baldintzatan gauden eta zernolako unea bizitzen ari garen.

Badakigu zein den gure lana. Horregatik lortu ditugu ia 3.500.000 €-ko diru-sarrerak, eta diru-sarrera horiei esker gure gastuak ordaindu ahal izan ditugu, eta 10.000 €-ko soberakinak izan ditugu.

Horregatik egiten dugu amets.

Gure zerbitzuetan sartzen diren pertsonei egiten dien onuragatik.

Eta hor behar dugu laguntzarik handiena.

Club Social kluba errealitate bat izaten jarraitzea nahi dugu, ez 2013an soilik. Iraunkorra izatea nahi dugu.

Zabalduz berriz ere errealitate bat izatea nahi dugu.

Pertsonei hobetzen lagunduko dieten proiektu berriak atera nahi ditugu aurrera. Pertsonak oinarri hartuta.

Elkar banatzen jarraitu nahi dugu.

Nahi izan nahi dugu.

Amets egin nahi dugu.

somos lo que soñamos

Y queremos seguir soñando, ¿por qué no?. Queremos seguir mejorando. Abrir nuevos caminos, consolidar lo que ya hacemos. Crear y crecer. Hacerlo entre tod@s. Hacerlo contigo.

Sabemos que hablar de invertir, de subvencionar, de colaborar, de donar, en los tiempos que corren puede sonar a utopía, casi a milagro, a riesgo, incluso a desfachatez. Pero si detrás hay personas, con una problemática y unas necesidades, si detrás hay una apuesta desde el protagonismo y la autonomía, entonces, tal vez, pueda sonar a esfuerzo, a apuesta, a creencia en que otro mundo es posible.

Somos conscientes del escenario donde estamos, de las circunstancias y del momento que atravesamos.

Conscientes de nuestra labor. Por eso hemos logrado unos ingresos cercanos a los 3.500.000 €, que nos han permitido afrontar nuestros gastos y generar un excedente de 10.000 €

Por eso soñamos.

Por los beneficios que aporta a las personas que entran en nuestros servicios.

Y es ahí donde necesitamos los apoyos.

Queremos que el Club Social no sea sólo una realidad en el 2013. Queremos que sea duradero.

Queremos que Zabalduz se haga de nuevo realidad.

Queremos sacar adelante proyectos nuevos que hagan mejorar a las personas. Desde las personas.

Queremos seguir compartiéndolo.

Queremos querer.

Queremos soñar.



somos tod@s

argia fundazioa

www.argiafundazioa.org

denok gara

Colabora en la edición-Laguntzailea:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Gizarte Ekintza Saila Departamento de Acción Social